

THARSIS EDESTIA



Batez be fenizioak onak ziran metalak non dagozan usaiña artzen eta billatzen, naiz egotaldera gaurko Afrika´ren, naiz iparralderantz gaurko Bertaña´ra arte joaten ziran.

Iru gauza irakatsi ebezan orduko gizartean, itxas-ontziak egiten, idazten eta metalakaz dirua egiten. Ez gendun eurakaz artu-emon larregirik euki, guri ez euskuen irakatsi idazten eta ez diru egiten eta intxas-ontzigintzan onak gara baiña ez dakit arein irakatsia dan.

Orduko Tharsis ori (gaurko Rio Tinto) zabala zan eta gaur Huelba, Sevilla eta Cordoba diran lurralden zatiak artzen ebazan. Sierra Morena´tik be urrean eukezan meategiak.

Gaiñera, lurra landu nai ebenak arlo ederrak eta ugariak eukezan Guadiana-inguruan.

OLAZAR´tar Martin´ek

Tharsis edo Tartessos inguruak ospe aundia izan eban antxiñako denporetan eta entzute orren iturriak bertan egozan meategi aberatsak dira.

Salomon erregeak bere itxas-ontziak meatzen billa Tharsis´era bialtzen ebazan. Eta salmoetan de sarritan esaten da Tharsis´ko eta ugarteko erregeak Israel´goari esku-erakutsiak ekarriko eutsoezala.

Jonas igarleak, iges egiteko Jafa´n Tharsis´erako tiketa artu eban.

Ba-dakigu inguru orretan agintari ospetsua izan zan errege baten izena be: Argantonio. Izen au ba-leiteke mito utsa izatea.

Tharsis orretara urreratu ziran, inguruetan koloniak ezarrita, grekoak eta fenizioak.

